

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2019ko DEIALDIA

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

23-05-2019

**LURRAREN ETA INGURUMENAREN
ZIENTZIAK**

KALIFIKAZIOA

DEITURAK

IZENA

NANa/ANTa

1. Atmosferari dagokionez, erantzun honako galdera hauei:
 - a) Ordenatu atmosferaren geruzak: ESTRATOSFERA, TERMOSFERA, IONOSFERA, TROPOSFERA, MESOSFERA, beren kokalekuaren arabera lurrazaleetik abiatuta. (0,4 puntu)
 - b) Adierazi zer geruzari dagokion esaldi hauetako bakoitza: (0,6 puntu)
 - Geruza horretan dago ozono geruza.
 - Geruza horretan 1.000°C-tik gora igo daiteke tenperatura.
 - Geruza horrek du gasen kontzentrazioarik handiena.
 - Geruza horretan erradiazio ultramorea xurgatzen dira.
 - Geruza horretan gertatzen dira fenomeno atmosferikoak.
 - Geruza horretan xurgatzen dira X eta gamma izpiak, eguzkitik datozenak.
 - c) Zein da presio atmosferikoaren definizioa? Nolakoa da presio atmosferikoa zikloien eremuetan? Eta antizikloien eremuetan? Nola sortzen dira zikloiak eta antizikloiak? Zer baldintza meteorologiko lotzen dira egoera hauetako bakoitzarekin? (1 puntu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2019ko DEIALDIA

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

23-05-2019

**LURRAREN ETA INGURUMENAREN
ZIENTZIAK**

2. Arrisku geologikoei dagokienez:

- a) Egin ezazu arrisku naturalen sailkapen bat, adibideak ipiniz. (0,5 puntu)
- b) Definitu ezazu arrisku bolkanikoaren kontzeptua. Adieraz ezazu Lurrean zer eremuk duten arrisku bolkanikorik handiena eta eman horren arrazoiak. (0,75 puntu)
- c) Azaldu ezazu predikzioko zer metodo erabil daitezkeen arrisku bolkanikoen azterketan. (0,5 puntu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2019ko DEIALDIA

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

23-05-2019

**LURRAREN ETA INGURUMENAREN
ZIENTZIAK**

3. Ekosistemei dagokienez:

- a) Adieraz ezazu nola gertatzen den energiaren eta materiaren fluxua ekosistema batean. (0,75 puntu)
- b) Adieraz ezazu ziklo biogeokimikoaren kontzeptua. (0,25 puntu)
- c) Zein da izaki bizidunen egitekoa karbonoaren zikloan? (0,5 puntu)
- d) Nola eragiten du gizakiak karbonoaren zikloan? (0,75 puntu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2019ko DEIALDIA

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

23-05-2019

**LURRAREN ETA INGURUMENAREN
ZIENTZIAK**

4. Energia-iturriei dagokienez:

- a) Komentatu energia iturri desberdinak (berriztagarriak eta berriztaezinak). Adierazi zer iturri motatan sartzen diren gizakiak erabiltzen dituenak. (0,75 puntu)
- b) Energia hidraulikoa energia iturri berriztagarritzat har daiteke? Arrazoitu ezazu erantzuna. (0,25 puntu)
- c) Adierazi nolakoa den eguzki energiaren aprobetxamendua. (0,5 puntu)
- d) Adierazi zer abantaila eta desabantaila dituen eguzki energiak. (0,5 puntu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2019ko DEIALDIA

31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa

23-05-2019

**LURRAREN ETA INGURUMENAREN
ZIENTZIAK**

5. Hautatu ondoko galdera bakoitzerako erantzun egokia. (2 puntu) (Oharra: ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik).

- 5.1. Tanta hotzaren fenomeno meteorologikoari beste izen hau ere ematen zaio:
- A) Goi-geruzetan isolatutako depresioa
 - B) DANA
 - C) Bi erantzunak dira zuzenak
- 5.2. Arrisku geologiko hauek dira lurrian gehien zabaldua daudenak:
- A) Grabitazio mugimenduak
 - B) Arrisku sismikoak
 - C) Uholdeen arriskuak
- 5.3. Atmosferan alderantzke edo inbertsio termikoa gertatzen da, honako kasu hauetan:
- A) Atmosferako goiko zonetan tenperatura baxuagoa denean beheko zonetan baino
 - B) Azaleko zonetan tenperaturaren inbertsioa gertatzen denean, haizearen ondorioz
 - C) Atmosferako goiko zonetan tenperatura altuagoa denean beheko zonetan baino
- 5.4. Akuifero batean, ura iristen den goiko mugari honela deitzen zaio:
- A) Maila piezometrikoa
 - B) Maila freatikoa
 - C) Aireztatze maila
- 5.5. Izaki bizidunak zer dira ekosistema batean:
- A) Haren faktore abiotikoak
 - B) Haren faktore deskonposatzaileak
 - C) Haren faktore biotikoak
- 5.6. Bi organismoren arteko sinbiosia da:
- A) Harreman intraespezifikoa bat
 - B) Harreman interespezifikoa bat
 - C) Bi erantzunak dira zuzenak
- 5.7. Edafogenesi terminoarekin zer adierazi nahi da:
- A) Gatazkak sortzen dituzten espezieen harremanak
 - B) Lurzoru bat eratze prozesua
 - C) Lurzoru batean behar den prozesua materia organikoa sortzeko
- 5.8. Ur ekosistema batean mantenugai gehiegi dagoenean zer sortzen da:
- A) Uraren eutrofizazioa
 - B) Produktibitate biologikoa ikaragarri handitzea
 - C) Bi erantzunak dira zuzenak
- 5.9. Araztegi batean prozesu hauek egiten da:
- A) Herri batean erabili den ura araztu ibaira itzuli aurretik
 - B) Industria kontsumorako ura araztu
 - C) Giza kontsumorako ura araztu
- 5.10. Zeri esaten diogu erreserba?:
- A) Baliabide batean eskura dagoen kantitate osoari
 - B) Behar bat asetzeko eskura dauden baliabideei
 - C) Etorkizunean erabiltzeko erreserbatu daitezkeen baliabideei